

# Arlepeko III. Barruti Kapituluak

## Senitarteak amestu eta ehundu



# Barruti Kapituluaren alde otoitza

★ Aita eta Ama zaren Jainko maite hori,  
eskerrak ematen dizkizugu  
gutako bakoitzari dei egin diguzulako  
zure jarraitzaile izatera,  
zure Elizaren partaide,  
Salletar Familiaren baitan.



✦ Barruti Elkartearen topaketa honen atarian,  
zure eskuetan jartzen ditugu gure bokazio- eta apostolu-ibilbidea,  
gure ziurtasunak eta gure nekeak,  
jakin dakigularik, uste sendoz, gure bizi-egitasmoaren  
etorkizuna eta handitasuna Zugan ditugula.



★ Lagun iezaguzu

La Salleko Joan Bautistaren ametsa eguneratzen  
gure bizitzaren erdigune Jesus izan dadin,  
gure erlijioso-bizierak ibilbide berriak aurki ditzan  
zure aurpegiaren bila, Misio berean elkarrekin,  
xume eta behartsuenen artean.

✦ Bidal iezaguzu, Jauna, zure Espiritua  
gure itxaropena susta dezan  
eta zugan dugun konfiantza sendotu.  
Eta bedeinka gaitzazu, munduaren erdian  
senidetasuna ehuntzen den bilbea  
izan gaitzen.



★ Argi itzazu Anai Kapitularrak,  
zure Espirituaren indarrez  
Jesussek eskaintzen dizkigun alaitasuna  
eta itxaropena kutsatzeko gai izan daitezen.

✦ Zure eskuetan jartzen dugu,  
Arlep Barrutiko gure hirugarren Kapituluak.  
*Amen.*

